

## **ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO PREMIAZKO HAUTAPEN PROZEDURA**

DEMA-Enpleguaren eta Ekintzailtzaren Foru Agentziak **ENPLEGU ETA EKINTZAILTZAKO TEKNIKARI AHOLKULARI** gisa lan egingo duen pertsona bat behar du aldi baterako.

Hautatzen den pertsonak lan munduan sartzeko programak kudeatu, ezarri eta justifikatuko ditu, parte hartzen duten pertsonen eta programen emaitzen erregistro zehatzak eta eguneratuak eginez, eta ekimenen eragina eta eraginkortasuna ebaluatzeko aldizkako txostenak sortuz.

Zenbait unetan laguntza teknikoa eman ahal izango du beste ekintzailtza-programa batzuetan.

### **Beharrezkoa da:**

- Unibertsitateko titulazioa: Zuzenbidea / Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza / Psikologia / Soziologia edo antzekoa.
- Laneratzeko programen kudeaketan esperientzia frogatua, ahal dela, hainbat arlotan.
- Komunikatzeko trebetasunak, idatzizkoak zein hitzezkoak, eta hainbat pertsona-talderekin harreman eraginkorrak izateko gaitasuna.
- Ofimatikako tresnak eta Office 365 menderatzea.
- Pertsona proaktiboa, taldean lan egiteko gaitasun handia, zorroztasuna eta balioa emateko gaitasuna duena.
- Gidabaimena eta norberaren ibilgailua.

### **Baloratuko da:**

- Giza baliabideekin zerikusia duen prestakuntza osagarria (graduatu ondoko maila / masterra).
- Bizkaian laneratzeko eta ekintzailtza sustatzeko erakundeen sarea ezagutzea.
- Euskaraz jakitea.

### **Eskaintzen dena:**

Lanaldi osoan berehala hastea, aldi baterako ezintasuneko baja ordezkatzeko kontratu baten bidez eta lanpostuari dagokion ordainsari ekonomiko baten bidez.

Hautagaiak ondoko estekan aurkeztea:

<https://www.dema.eus/izenematea/ofertaempleoemprendimiento.php>

\*DEMAk eskubidea du lanpostua hutsik uzteko, baldin eta lanpostuarekin bat datozen profilak aurkitzen ez baditu.